



LASARTE-ORIA

UDALA-AYUNTAMIENTO

LASARTE-ORIAKO UDALERRIAN
ZEREMONIA ZIBILAK EGITEKO
ERREGELAMENDU ARAUTZAILEA



LASARTE-ORIA

UDALA-AYUNTAMIENTO

Udalbatzarra:
Hasierako onespena:
Behin betiko onespena:



Hitzaurrea

Gizarte guztietan, antzinatik, modu berezian ospatu dira jaiotzak, helduaroko bizitza osatzen duten parekatzeak eta kideen heriotza. Gaur egungo estatu akonfesionalean, gero eta udal gehiagok hartzen dute beren gain, herritarrentzako zerbitzu gisa, zeremonia zibilak egiteko aukera, tokian tokiko agintarien presentziarekin lagunduz edo, besterik gabe, ekitaldi horiek garatzeko leku egokiak eskainiz.

Orain arte, Lasarte-Oriako Udalean ezkontzen zeremoniak bakarrik egin dira. Dokumentu honen asmoa hainbat zeremonia zibil arautzea da, herritarrei zerbitzu bat emateko nahiarekin.

Lasarte-Oriako Udalak, erlijio-askatasunari eta Espainiako Konstituzioan ezarritako gainontzeko eskubide eta askatasunei errespeturik handiena erakutsiz, lankidetzara hori eskaini nahi die beren sinesmen eta konbikzioen arabera hala nahi duten herritarrei, horretarako dagokion ordenantza arautzailea onetsiz.

Azken batean, erregelamendu honen bidez erantzuna eman nahi zaio herritarren kolektibo bati, zeinek erritu edo zeremonia zibil bat hautatzeko baliabide eraginkor bat eskatzen baitu, besteen eskubideak errespetatuz eta tolerantziaz, bere egoera zibilarekin lotutako konpromisoak hartzeko, jaioberriei ongietorria emateko edo beren maiteei komunitatearen dolumina emateko.

ZEREMONIA ZIBILEN ERREGELAMENDUA

I. kapitulua. XEDAPEN OROKORRAK

1. artikulua. Xedea

Erregelamendu honen xedea da herritarrek eskatuta zeremonia zibil jakin batzuk egiteko prozedura arautzea. Zeremonia horiek dira: harrera zibila, ezkontza zibila eta hileta zibila.

2. artikulua.- Helburua

Entitate publiko gisa Lasarte-Oriako Udalari dagozkion obligazioak betez, erregelamendu honen helburuak honako hauek dira:



- A. Inolako sinesmen erlijiosori atxiki gabeko ideiak, etika, morala eta balio sozialak dituzten herritarrei jokabide-arau demokratiko eta toleranteetan oinarritutako zeremonia zibilerako duten eskubidea aitortzea.
- B. Herritarrak beren eskubide eta libertateez baliatzea defendatzea, haien konbikzioak edozein direla ere, betiere pertsonak eta haien eskubideak errespetatzen badituzte.
- C. Udalaren esku dauden baliabideekin, ospakizun laikoak ingurune duin batean egiteko aukera eskaintzea herritarren bizitza sozialeko ekitaldi zibil garrantzitsuenetarako, horretan lagunduz eta parte hartuz, hartara familian eta gizartean dituen konpromiso eta betebeharrak zibilak adierazi eta publikoki agertu ahalko baititu, zeremonia erlijiosoen alternatiba gisa eta bere askatasunaren espresio moduan.

3. artikulua. Edukia

Erregelamendu honek arautzen du Udalak nolako lankidetzak eskainiko duen herritarrek harrerako, hiletako eta ezkontzako zeremonia zibilak egin ditzaten, eta, bereziki, zein erregimenetan utziko dizkien egoitza municipalak ospakizun horietarako.

II. kapitulua. HARRERA ZIBILA

4. artikulua.

Egintzaren definizioa: Lasarte-Oriako bizilagun berri bati komunitatera egiten zaion ongietorriaren agerpen publikoa da, bere eskubide guztiekin eta komunitatearekiko betebeharrak korrelatiboekin.

Harrera zibilean, Udalak, ekitaldi publikoan, gurasoek edo legezko tutoreek hala eskatuta, eta auzotarren komunitatearen ordezkari gisa, ongietorria egiten dio eta komunitatean hartzen du jaioberria edo tutoretzapekoa, izaera hori emateko eta Haurren Eskubideen Deklarazio Unibertsalean eta Giza Eskubideen Deklarazio Unibertsalean adierazitako eskubideez gozatzeko duen eskubidea aitortzeko.

Harrera zibilak balio sinbolikoa eta politikoa baizik ez du, haurra gizartean eskubide osoko herritar gisa hartzeko ekitaldi publiko bat egiteko baita, eta gurasoek edo legezko tutoreek haurra printzipio demokratikoetan eta herritar gisa dituen eskubide eta betebeharrak hezteko konpromisoa hartzeko.



Eskaera egiteko prozedura eta dokumentazioa:

Prozedura Alkatetzari zuzendutako eskaera batekin abiatuko da, eta eskaera horretan jasoko dira adingabearen eta gurasoen edo legezko tutoreen datuak, bai eta aukeratutako lokala eta etorriko direnen kopurua ere (gutxi gorabehera).

-Familia-liburua, aitasuna/amatasuna egiaztatzen duen jaiotza-ziurtagiria edo adingabearen tutoretza ematen duen ebazpen judiziala (nahikoa da hiru agiri horietako bat).

III. kapitulua. EZKONTZA ZIBILAREN ZEREMONIA

5. artikulua.

Egintzaren definizioa: ezkongaiak eskatuta, ekitaldi publikoan zeremonia zibil bat egitea da, egintza egiteko beharrezko baimena epaitegian tramitatu eta lortu ondoren.

Eskaera egiteko prozedura eta dokumentazioa:

- Prozedura Alkatetzari zuzendutako eskaera batekin abiatuko da, eta eskaera horretan jasoko dira ezkongaien eta lekukoen datuak, bai eta aukeratutako lokala eta etorriko direnen kopurua ere (gutxi gorabehera).

-Ezkontza egiteko beharrezkoa den dokumentazioa, epaitegiak emana.

IV. kapitulua. HILETA ZIBILA

6. artikulua.

Egintzaren definizioa: heriotzaren unean eta haren oroitzapena ohoratzeko, herritarrari bere komunitateak egiten dion laguntzaren agerpen publikoa da.

Hileta zibilean, Udalak, familiartekoen hala eskatuta, komunitatearen dolua erakusten dio Lasarte-Oriako herritarrari.

Eskaera egiteko prozedura eta dokumentazioa:

- Prozedura Alkatetzari zuzendutako eskaera batekin abiatuko da, eta eskaera horretan jasoko dira zenduaren datuak, bai eta aukeratutako lokala eta etorriko direnen kopurua ere (gutxi gorabehera).

- Heriotzaren ziurtagiria.



Aipatu behar da prozedura honek ez duela loturarik nitxoa eskatzekoarekin.

V. kapitulua. ZEREMONIAK EGITEKO ERREGELAK.

7. artikulua.

1. Aplikatzekoak diren arauzko xedapenen arabera, Lasarte-Oriako Udalak erregelamendu honetan jasotako zeremonia zibil solemneak baimentzen ditu eta horietan parte hartzen du.

Ezkontza zibila alkateak edo hark delegatutako zinegotziak zuzenduko du; hileta zibilaren eta harrera zibilaren kasuan, alkateak, hark delegatutako zinegotziak edo familiartekoez proposatutako edozein pertsonak zuzenduko dute ekitaldia.

2. Zeremonia zibil ezberdinak egin ahal izateko ez da ezinbestekoa izango Lasarte-Orian erroldatuta egotea.
3. Egintzaren izaera: erregelamendu honetan jasotako zeremonia zibilaren antolaketan, eskatzaileen borondatea gailentzen da, eta haiek Udalarekin adosten dute egintza nola burutu, bai eta haren izaera publikoa edo pribatua ere.
4. Ondorio juridikoak: zeremoniek egintzaren berezko izaeratik eratorritako ondorio juridikoak dituzte.
5. Erregelamendu hau aplikatuz tramitatutako espediente munizipalako datuak eskuratu ahal izateko, Datuak Babesteko Erregelamendu Orokorrean indarrean dagoen araudia bete beharko da.
6. Eskaera egiteko prozedura: eskaerak Udaleko Erregistro Orokorrean aurkeztuko dira, aurrez-aurre edo baliabide elektronikoen bidez, aplikagarri den araudi jarraituz, eta Alkatetzari zuzenduko zaizkio.

Proposatutako ospakizuna egin baino gutxienez bi hilabete lehenago aurkeztu beharko dira eskaerak, hileta zibilaren kasuan izan ezik. Ospakizun azkarra/mina egitea aukeratu ez gero, gutxienez bi egun lehenago egingo dira.

7. Ekitaldia egiteko baimenak Udaleko Erregistro Orokorrean aurkeztutako datuen hurrenkeraren arabera ematen dira, eta hurrenkera horrek ematen du lokal jakin bat erabiltzeko eta ekitaldiaren data hautatzeko lehentasunezko eskubidea.



8. Lokalak erabiltzen uztea, erabilgarri daudela egiaztatu ondoren: Udalaren instalazio eta eraikinen erabilerak erabilera pribatibo bereziaren izaera du. Udalak lokal hauek ditu erabilgarri:

- Harrera zibila:
 - Bista-aretoa: astelehenetik ostiralera, 10:00etatik 14:00etara
 - Villa Mirentxu: astelehenetik larunbatera, 10:00etatik 14:00etara

- Ezkontza zibilak:
 - Bista-aretoa: astelehenetik ostiralera, 10:00etatik 14:00etara
 - Udalbatzarren aretoa: astelehenetik larunbatera, 10:00etatik 14:00etara
 - Villa Mirentxu: astelehenetik larunbatera, 10:00etatik 14:00etara

- Hileta zibilak:
 - Villa Mirentxu: astelehenetik larunbatera, 10:00etatik 14:00etara
astelehenetik ostiralera, 18:00etatik 20:00etara
 - Hilerria: astelehenetik larunbatera, 09:00etatik 12:00etara
astelehenetik ostiralera, 17:00etatik 19:30era

Halere, erabakitzen den beste edozein gune municipal egokitu daiteke.

9. Ezingo da hileta zibilik egin gorputza bertan dela. Hala ere, onartuko da errauts-kutxen presentzia.

8. artikulua

Dekorazioa

Esleitutako lokala apaindu edo modu berezian prestatu nahi izanez gero, Lasarte-Oriako Udalaren adostasunarekin egin beharko dute, betiere lekuaren harmonia eta ezaugarriak errespetatuz, eta eskatzailearen kontura izango dira horrek sorrarazten dituen gastuak. Lokala apaintzea aukeratuz gero, eskatzaileak arduratuko dira lokala goera berean uzteaz, barrualdea bezala kanpoaldea ere.

Iraupena

Ospakizunek gehienez ere 60 minutu iraungo dute.



LASARTE-ORIA
UDALA-AYUNTAMIENTO

Amaierako xedapena

Erregelamendu honetan aurreikusi gabeko guztian, Europako, estatuko, komunitate autonomoko lege-araudira eta aplikatzekoak diren gainerako arauetara egokitu behar da.